webguneak

Badator uhin berria: MMS

Multimedia mezuak sakelako telefonoetatik eta Internetetik ere bidal daitezke

Andoni Sagarna • Plazagunea

Multimedia mezuak, MMS ere esaten zaienak, gure artean daude dagoeneko. Orain arte sakelako telefonoen bidez jaso eta bidali ditugun testu soilezko SMS mezuek izan duten uste baino arrakasta handiagoak eragindako olatuaren gainean datoz indarrean. Mezu berri hauek duten bereizgarria ikus-entzunezko elementuak dira. Testuaz gain, koloreetako argazkiak eta audio fitxategiak bidal daitezke mezu hauetan. Espainian, Movistar hasia da zerbitzu hau eskaintzen, bai kontratua duten bezeroei, bai aldez aurretik ordaintzen duten abonatuei ere. Hasieran, bi telefono-eredu jarri zituen aukeran: Nokia 7650 eta Ericsson T68i, baina iragarri du beste telefono batzuk ere erabili ahal izango direla.

Oraingoz, mezuak operadore bereko bezeroen artean bakarrik truka daitezke, baina ados jarri dira konpainiak batetik bestera ere bidali ahal izateko.

Frantzian, Bouygues Telecomek (Sony-Ericsson T68i telefonoarekin) eta SFRk badute MMS zerbitzua, baina France Telecomek nahiago du itxaron, operadore arteko mezu-trukeak posible izan arte.

Izango ote dute MMS mezuek GPRS sisteman, SMS mezuek GSM sisteman izan duten adina arrakasta? Enpresa batzuek baietz pentsatzen dutela dirudi; ildo horretatik, Telefonica taldeko TPI-Páginas Amarillas-ek, SIMOn, sakelako telefonoetarako MMS bidezko iragarkiak aurkeztu ditu. Iragarki hauek webgune batetik nahiz sakelako telefono batetik bidal daitezke. Erabiltzaileek, dauden lekutik hurbil (kilometro batetik hamarrera bitarteko erradio baten barruan), behar duten produktua edo zerbitzua (gasolina zerbitzugunea, sendagilea, jatetxea) bila dezakete Espainiako 404 herritan.

Hotel bat bilatzen badute, esate baterako, helbideaz gain, kokapen-planoa, argazkia eta horrelako gauzak ere jasoko dituzte.

Enpresa batzuek apustu gogorra egin dute MMS mezuen alde. Adibidez, Nokiaren ustez, argazki-kameradun telefonoen salmentak argazki-kamera digitalenak baino handiagoak izango dira urte gutxi barru, bideo mezuek bultzaturik. Goian aipatu den Nokia 7650 sakelako telefonoak badu argazki-kamera. Ericsson-eko arduradunen ustez, berriz, MMS mezuen kopurua handiagoa izango da SMSena baino, 2005erako.

Edukien hornitzaileak ere ari dira pixkanaka mezu hauetaz baliatzen. Adibidez, Amenaren abonatuek, telefono egokia izanez gero, jaso ditzakete dagoeneko albisteak argazki eta guzti. Albiste hauek *EL PAIS.es*, *As.com* eta *los40.com* guneek igortzen dituzte.

Vodafonek *Vodafone live* zerbitzua jarri du eta eskaintza hauek ditu: MMS mezularitza, jokoak, melodia polifonikoak, irudiak eta soinua duten albisteak, solasgunea, lokalizazio-zerbitzuak, argazki-albumak, etab. Hasieran zerbitzu honetaz baliatzeko Sharp GX10 telefonoa behar izan da, baina Panasonic GD87, Nokia 7650 eta Sony Ericsson P800 ereduekin ere funtzionatuko duela agindu dute.

Nahiz eta arazoak izan oraindik telefono batzuetatik besteetara edo operadore batetik bestera MMS mezuak bidaltzeko, badirudi industriak presa duela teknologia hau saltzeko. Seguru, Eguberrietarako motorrak ongi berotuta dauzkatela.

Nokia 7650
http://www.nokia.com/phones/7650/

Ericsson T68i
http://www.sonyericsson.com/T68i/

Páginas Amarillas
http://paginasamarillas.es/pro

info www. www. www. www. www. www. www. www. www. www. www. www. www. www. www. www. www.

'Netokrazia'



Teknologi aurrerapenek dakartzaten ondorioei buruzko gogoeta eginez, Alexander Bard eta Jan Söderqvist idazle suediarrek idatzi duten liburuaren izenburua da hau. Egileek joan zen astean aurkeztu zuten beren obraren espainierazko bertsioa SIMO erakusketan.

Suedian 2000. urtean argitaratu zen liburu honek etorkizuneko mundu digitala irudikatzen du. *Netokrata* izenaz bataiatu dituzte informazioa eskuratzeko baino areago, informazioa manipulatzeko eta baliagarria gertatzen zaiena eskuratzeko trebetasun sozialak izango dituzten pertsonak; eta *netokrazia*, berriz, gaitasun horietaz eta informazioaren eta komunikazioen teknologiez baliatuz, gizarte berriko goi mailako klase sozialak da.

Aldaketa teknologikoen eraginei buruzko gogoeta filosofiko, historiko, ekonomiko eta enpresariala eginez ekiten diote gaiari. Beren ustez, komunikazio-modu berriei norbere interesen aldeko probetxua ateratzeko gai ez direnak baztertu egin ditzakete aro digitalean.

Gizarte netokratikoan dena sarean egongo da, eta hiru jokabideren arteko elkarrekintzatik sortuko da: alde batetik, *eternalistak* izango dira, errealitatea interpretatzen dutenak, gaur egungo gizarteko akademikoen parekoak alegia; bestetik, *nexialistak* edo sarean oinarrituko diren enpresa-sortzaile berriak; eta *jagoleak*, egungo politikarien ondorengo izango direnak eta nexialistei nondik joan esango dietenak.

Bard eta Söderqvist egileek dagoeneko bigarren liburua argitara eman dute, Suedian, *Inperio globala* izenburuarekin.